Está claro que se imponen los acuerdos de libre mercado. En el fondo, sin embargo, el cambio climático debería ser una oportunidad increíble. Pero no para una economía verde capitalista, que quiere poner valor monetario a los bosques, sino para una economía local, renovable y menos contaminante.

París es importante. Porque es fundamental detener este proceso destructivo. Pero no es suficiente. Ocurre lo mismo que con el debate del pico del petróleo. Hoy ya no es "el problema" fundamental. El problema fundamental es otro: el cambio climático. Si quemamos todo el petróleo que conocemos, la temperatura ¿cuánto va a subir en el planeta? ¿Cuántas especies, fundamentales para el planeta, desaparecerán? ¿Hasta dónde va a llegar el mar? ¿Va a llegar hasta Bilbao? Lo va a inundar todo, y gran parte de la población del planeta vivimos en las costas. Seguimos sin percibir que el cambio climático va a tener unas consecuencias increíbles.

Hay estudios muy creíbles, como cita Noami Klein en su último libro, que nos dicen cuánto carbono podemos quemar hasta 2050 para mantener la subida de la temperatura en 2°C, y eso significaría dejar en tierra el 80% de las reservas fósiles que conocemos a día de hoy.

Me encantaría decir que vamos a poner límites al sistema de libre mercado y se va a imponer una cultura de hacer frente al cambio climático, pero a día de hoy no es esa la tendencia.

**¿Qué destacarías como ejemplo o interesante de lo que está haciendo de cara a construir una alternativa a este modelo económico y energético?**

Una de las claves es la economía local y, en ese sentido, aquí existe mucho comercio local. Es mucho más fácil a pequeña escala. Técnicamente es posible desarrollar otro modelo energético. Política y socialmente, yo creo que aún no es posible. No hemos conseguido crear la conciencia y las condiciones para ese salto a otro modelo. Y es ahí donde tenemos que trabajar más.

Solo si mucha gente se pasa a una cooperativa que comercializa energía renovable, va a dar el cambio lberdro-la. Si un gran grupo de gente decide dar el paso de poner un panel solar para auto-consumo, podremos generar otra situación. Aunque es ahora cuando las grandes empresas del sector eléctrico, lberdro-la entre ellas, han conseguido que se legisle contra las instalaciones solares de auto-consumo, lo cual es una señal. Tenemos

todos los tejados desaprovechados mientras en New York se lo están planteando al revés. Todo es posible. En Euskadi, somos mucha gente en muy poco territorio, pero con el aprovechamiento de biomasa, sol y viento seguramente una parte muy importante de los que consumimos se puede conseguir de renovables. Sobre todo si reducimos nuestra huella de consumo, haciendo que todo sea más local y dejamos de derrochar como lo hacemos como sociedad. Seguro que podemos hacerlo, mejorando además la economía propia y las condiciones laborales locales. Sabemos como hacerlo.

**Más allá de lo que podemos y debemos hacer a nivel doméstico o individual, tenemos la cuestión del sistema productivo. En los últimos años, con la coartada de la crisis económica y financiera, se ha buscado por parte de la patronal con la aceptación de los gobiernos, aumentar lo que llaman competitividad de las empresas a costa de los trabajadores y trabajadoras (destrucción de empleo, precariedad, empeoramiento de las condiciones laborales,...) cuando el principal problema de esas empresas era la alta factura energética. ¿Es posible la transición energética que planteas, también en el ámbito productivo?**

Técnicamente todo es posible. Es cuestión de prioridades en las políticas públicas. Seguramente, habría dificultades, pero no se ha abordado en serio esta cuestión. Como te decía antes, a nivel político se está muy lejos de estas propuestas. En el mundo

sindical sin embargo, por ejemplo con el tema de Garoña ya se dio un paso importante a la hora de decir que el empleo es importante, pero ¿a costa de qué? En las últimas elecciones, sin embargo ya se ha visto que partidos con peso como EHBildu, Equo y muchos ya han incorporado el tema de las energías renovables y ahí se abre un caminito. Debería ser mayor. Sin duda. Pero es cierto que estamos dando un paso que es una oportunidad para todos. No es lo mismo trabajar en la extracción petróleo que tienes que irte a Argelia, o trabajar en Petro-nor o trabajar haciendo paneles solares o en eólicos. ¡Por cuestiones de salud laboral en el trabajo!

Los partidos, las empresas, los sindicatos... cada uno debería utilizar los resortes que tiene cada uno en su ámbito para hacer frente a ésta cuestión. Porque es una cuestión prioritaria. Y esa conciencia debemos adquirirla todos. El empleo es importante. Los 400 de Garoña han sido muy importantes para el gobierno español para justificar el mantenimiento de la central, pero en la crisis se han destruido 65000 empleos en empresas de energía renovables y no se ha hecho nada para mantenerlos o protegerlos por razones estratégicas. El máximo empleo en renovables en el estado español fue de 136000 empleos en 2007. A día de hoy hay 70000 más o menos. Y todo en empresas pequeñas o medianas, en cualquier caso en empresas de no más de mil trabajadores. Esto social y económicamente le cuesta al estado y le cuesta a la gente. Y a futuro nos cuesta a todos. Y hay que tener en cuenta que estas

empresas, las dedicadas a la energía renovable crean más empleo por kilovatio que las dedicadas a energías fósiles, un empleo más local, productos necesarios, empleo más saludable, beneficio directo e indirecto a la sociedad etc.

Hay que analizar no sólo cuanto cuesta la transición energética, sino cuanto empleo puede crear, el daño que estamos haciendo al planeta y a la salud de las generaciones presentes y futuras con las emisiones y las formas de conseguir energía actuales y el favor que les haríamos... Hay que cambiar el modo que utilizan los lobbies de presión y los gobiernos de analizar qué es gasto y qué es inversión. ¿Por qué renovar un tramo de carretera "es un gasto", mientras que hacer una nueva, con todo el gasto energético y los destrozos del entorno que llevan asociados "es una inversión"? Hay que hacer las cuentas de otra forma. Por ejemplo, las energías renovables no causan ningún daño una vez que están en marcha. En cambio las centrales de ciclo combinado como Boroa, con sus emisiones que van a la atmósfera de todos y todas, están constantemente externalizando el coste de su actividad. Si analizamos los costes en dinero instantáneo, está claro que se impone la lógica capitalista actual pero si analizamos el coste de una camiseta hecha en China y otra en hecha en Ordizia en kilovatios-hora, emisiones de CO<sub>2</sub>, salud y empleos locales, el resultado cambia: esos kilos de CO<sub>2</sub>, no aparecen en la contabilidad pero el planeta los coge. Ante esa situación todos podemos hacer cosas.

# Gure bidea deshazkunde sustengarri demokratiko batean topatu behar dugu



**ELKA  
RRIZKETA**

**IÑAKI  
BARCENA**

EHUko Zientzia  
Politikoetan  
katredaduna  
eta ekintzaile ekologista



**Diagnostikoari helduta, baina berriki eman den kasu bati helduta, oso has-tapenetan dagoen arren hortaz daki-gunaren inguruan, zer ikasi dezakegu Volkswagen auziaz, kapitalismoaren jokabideaz?**

Ondo iruditzen zait hurbilpen horretatik hastea. Kasu horrek, Volkswagenenak, erakusten du, aspalditik komunitate zientifikoak baieztatu duen aldaketa kaltegarri eta arriskutsu baten aurrean, kapitalismoaren printze nagusiek (alegia, multinazionalak), gobernu nagusiak presionatzen dituztela euren enpresen kontrako neurriak har ez ditzaten. Baina era berean, onartutako arau horiek ere, esaterako Europar Batasunak planteatu dituenak eta oso bajuak direnak, urratzen dituzte. Horrelako kasu asko eta asko topa ditzakegu. Batez ere, Kyotoko protokoloan asmatutako "garapen garbia"ren mekanismo horiekin. Arauak bete egingo dira kasu batzuetan, baina tranpeatu egiten dira kasu asko eta askotan. Agerikoa da hori.

Alde batetik, negazionisten bideak, aldaketa klimatikoak suposatuko duen eragin kaltegarria ukatzen duenak, gero eta eragin txikiagoa eta espazio mediatiko eskasagoa dauka. Baina, oraindik ere krisi klimatikoak agerian jartzen du eredu soziala, eredu ekonomikoa eta eredu energetikoa aldatu egin behar direla. Zer gertatzen da zehazki? Auto eta garraioen irudiarentzako oso kaltegarria izango da azken afera hau. Europar Batasunarentzako ere, ikusten baita kontrol

politikoaren falta izugarria izan dela. Beste ustelkeria kasu bat da. Gizarte dinamiketan gaudenontzat argudio indartsu bat gehiago da. Baina jada ez da argudio eta kontra-argudio dinamika bat. Jadanik ez gaude arrazonamenduen fase batean. Nondik atera ditzakegu indarrak, masa kritiko nahikoa aldaketa hori bultzatzeko zientifikoak eta arrazonamenduzkoak hor baitaude? Maila txikian ari gara. Hor dugu Alternatiben Herria esaterako. Hala ere, nire ustez, ezinbestekoa da une honetan aldaketa politikoa bultzatzea.

**Kasu berdinari helduz, esango genuke auzi honen inguruko kezka bi norabidetan garatu dela: batetik kezka nagusia klimatikoki eta ingurumenaren ikuspegitik emisio horiekin egiten zaigun erasoaren dutek daude, eta bestetik auzi honek kolokan jar ditzakeen ondasun, enplegu eta inbertsioaren arduratu direnak daude. Interes dibergentzia hori nola egin behar diogu aurre alternatiba komun eta herritar baten ikuspegitik?**

Gaurko pentsamoldean lanpostuak sakratuak dira. Eta inbertsio eta garapen ekonomikoak ezinbestekoak dira, antza. Badirudi aurreraka doan lerroa geldiezi-na dela. Eta ikusi dugu 2008tik aurrera hori guztiz faltsua dela. Deshazkunde prozesu batean sartuta gaude nolabait. Horrek ez du laguntzen aldaketaren logikarako. Kuestionatu beharko dugu horrelako enpresak eta horrela funtzionatzen dutenak existitzen jarrai dezaketela inolako arazorik gabe.

Pertsona guztiok daukagu bizitza bizigarri eta kalitatezkoa izateko eskubidea. Eta orduan, pertsona guztiok behar dugu lanpostu bat, edo soldata bat edo beharrianak asetzeko moduren bat. Baina horrek ez du esan nahi automobilak egiten izan behar duenik. Berdin dio krisi energetiko izan, edo aldaketa klimatikoa izan, edo zaintzaren krisia izan, edo Ongizate Estatuaren edo krisi fiskala izan... Une honetan, gauzak egiteko bestelako modu bat topatu behar dugu. Iruzurrak, eskandaluak, ustelkeriak hor daude, baina horiek baieztatzen dutena ereduaren faltsutasuna da. Horren aurrean behar duguna: aliantzak, indarrak, estrategiak eta aldaketa politiko instituzionalak beste eredu politiko-sozial-ekonomiko batetarako.

Ez da erraza. Begiratu Nazio Batuen esperientzia. Rio de Janeiroko 1992ko konferentziaren harira komentatu dugu askotan. Inoizko gobernuburu bilera handiena izan da hori eta koiuntura oso berezian (Sobiet Batasunaren desagertzearen garaia). Han agertu zen Bush presidentea, Bush aita, ozenki esanez, bera ez zegoela han estatubatuarren bizimodua kolokan jartzeko, eta ez zuen ezer sinatu. Geroztik 23 urte joan dira eta dinamika horiek garatu egin dira (klimari buruzko konferentziak urtero egiten dira, orain Parisen COP21 egingo den bezala). Nazio Batuen Erakundeak behar dute aldaketa sakona behar du. Burokrazia handia, dinamika antidemokratikoa, eta antzeko arazo handiak ditu. Horren zain egon behar dugu aldaketa klimatikoari aurre egiteko? Ez du ematen.

**Zein da beraz, halako konferentzien birtualitatea, aldi berean estatuak TTIP, bezalako hitzarmenak negoziatzen eta sinatzen dituzten bitartean? Libre merkatuaren arauetan edo desarautzean sakontzeak non uzten ditu**

### **konferentzia horietan hartu beharreko konpromisoak?**

Parisen irudikatuko dena, Nazio Batuen zaharkitze edo loditze prozesu horren ondorioz, egin behar dena egiteko ezintasuna izango da. Normalean, multinazionalak exekutibo gehiago eramango dituzte gobernu askok baino. Aurrekoetan BMW, Volkswagen eta antzekoek stand izugarriak jarri izan dituzte eta delegazio handiak eramaten dituzte eta estatu batzuk, aldiz, delegazio txikiak bakarrik eraman ahal dituzte. Eredu horretatik etorri diren borondatezko konpromisoek ez dute eraginkortasunik izan eta "erantzukizun sozial korporatiboa"ren asmakizunak ere huts egin du. Ezer ezean geratu dira.

Parisen nik ez dut akordio berririk espero. Ez dago horretarako girorik edo gobernuen agendetan premiarik, akordio sendo bat behartzeko. Egongo dira zertxobait presionatuko duten gobernu batzuk, Latinoamerikako gobernu ezkeriak adibidez eta egongo da mobilizazioa noski, mobilizazio inportantea, baina ez dut uste aldaketa klimatikoaren garrantziak eskatzen duen eta munduan gertatzen ari diren fenomeno klimatikoaren aurrean egin beharrekoa egongo denik. Aldaketa batetarako engeinamendu, mobilizazio eta konpromize gehiago behar dira.

### **Globaletik lokalera etorrira, zeintzuk dira erronak Euskal Herrian?**

Ondo gogoratzen dut, E.A.E.-an egon den gobernu eraginkorra, sikiera diskurtso eta formatan, Sabin Intxaurrega Jaurilaritzan egon zenean alegia, nola esaten zuen bere kontseilari batek: "gu oso txikiak gara aldaketa klimatikoaren aurrean zer edo zer egiteko" eta guk esaten genien orain Goienerekin esaten duena: "gu oihanean txikiak gara, bai

na kolibri baten moduan gure ekarpena egin behar dugu". Euskal Herria txikia da, bai. Erkide Autonomoa txikiagoa. Nafarroa eta Iparralde Euskal Herria ere. Denera 3 milioi izango gara. Baina guk gurean bidea egin behar dugu. Energetikoki oso dependienteak gara. Zor ekologiko izugarria dugu beste herrialdeekiko. Daukagun bizimoduaren aztarna ekologikorako, Euskal Herriarena, bi planeta t'erdia beharko genituzke. Badaude okerragoak, baina hobeagoak ere badaude.

Eusko Jaurilaritzak 2050erako planteatu dituen aldaketa klimatikoaren politikak ez dira zuzenak, gure ustez. Guk, gure eredu eraiki behar dugu. Jakin behar dugu zernolako herria garen, zer baliabide energetiko ditugun, zer teknologia, industria eta nekazaritza ditugun, esaterako. Eta horrekin batera eta eztabaida demokratiko eta garden baten ondoren plan bat ipini behar dugu martxan. Eta ez daude hori egiten ari. Aldaketa klimatikoaren plan nagusiak Petronorrek, Iberdrolak, Abiadura Handiko Trenak eta abarrek markatzen dute, horiek baitira emisio gehien sortzen dituzten enpresak eta azopiegiturek. Horiek baldintzatzen dituzte ingurumen politika nagusiak.

Jauzi bat egiteko beste politikari batzuk, beste diskurtso batzuk behar dira. Adibidez, duela 15 urte Nafarroa izan zen Europako erregiorik ekologikoena energia politiketan. Elektrizitatearen %100 baliabide berriztagarriekin sortzen zen. 2002an energia ministro guztiak Iruñean batu ziren, manifestazio erraldoi bat egin zen (10.000 lagun). Egun badago energia eolikoaren garapen garrantzitsua, baina bestelako bide kutsakor eta antiekologiko batzuk ere zabaldu dituzte, energiaren alorra negozio lerro huts bezala kontsideratzen dutelako eta ez euskaldun guztiak behar dugun zerbitzua. EAEn, berriztagarrien garapena oso oso

eskasa da, %4 edo %5aren bueltan dabil. Etxeko lanak beste batzuentzat uzten dira. Erantzukizuna nazioartean, European eta estatuetan jartzen da. Haiegi egozten zaie. Eta aldi berean, politikak multinazionalen egoitzetan diseinatzen dira: EDF iparraldean; Repsol, Petronor, Iberdrola eta abar hegoaldean. Ekologistok errei-bindikatzen dugu herritarrok parte hartu behar dutela trantsizio energetikoan edo politika klimatiko berrietan. Ezin dugu multinazionalen interesek agindu dezaten utzi. Bada momentua politikariek herria multinazionalen aurretik jar dezaten. Guk ezagutu genuen 80ko hamarkadako desindustrializazioa. Badakigu noren kaltetan egin zen. Baita noren mesedetan. Herri industria gara halerre. Eta behar dugu industria sustengarri bat. Sozial eta ekologikoki onuragarria dena mantendu behar dugu eta aldatu behar dugu bestea. Petronor berez doa pikutara. Ez du zentzurik. Ez du inoiz izan, baina gaur egun gutxiago. Birfindegi bat petroleo putzutatik 6000 edo 7000 kilometrotara? Petroleorik txarre-na ekartzen ari dira, osasun eta kalitate ikuspuntutik, Koke planta horretan birfintzeko eta merkatu bat egiteko. Azken bi urtetan ekonomikoki kale egin du eta hurrengoetan ere egingo du ez direlako lehiakorrak. Guk plazaratu nahi dugun eztabaida hau da, Pariseko goi bilerraren harira Euskal Herrian zabaldu nahi duguna: Euskal Herriak aldaketa klimatikoarentzako politika berriak behar ditu eta pentsatu behar du zer eredu energetiko eta soziala behar duen, denok bizi gaitezen modu duin batean eta kontutan izanik multinazionalak saldu diguten bidea okerra dela.

### **Euskal Herrian posible da aldaketa eta trantsizio energetiko hori?**

Energia berriztagarrien ekonomiak enplegu gehiago sortzen du, kalitate hobegokoa eta modu onuragarriagoan

mantendu daitekeena. Estatu espainiarrean elektrizitatearen multinazionalak, esaterako, energia berriztagarrien kooperatiba txikien dinamika oztopatzea lortu dute, erregulazioaren arauak aldatu eta politika fiskal zigortzaile ezarriz.

Non dago Garoñako 200 langileen aldarrikapena? Nuclenorrek eta gobernu espainiarrak gure kontra erabili zituzten. Baina, hori oso kostu txikia da haientzat. Nahi dutenean amortizatu ditzakete. Petronorren dauden 9000 langileentzat hemendik urte batzuetara beste leku bat bilatu beharko dugu, hor ezingo dutelako lan egin. Baina ez ekologisten presioagatik, zoritxarrez. Guregatik bihar bertan itxi beharko litzateke. Baita, munduko dinamika finantzario eta ekonomikoek ez dutelako eutsigarri egiten horrelako instalakuntza bat. Mexicon, Venezuelan, Arabian edo beste nonbaiten birfindegia antola dezaketelako petroleo putzuaren ondoan eta petroleoari bertan atera ahal diote balio gehigarri guztia. Eta hori Repsolek jakin badaki.

**Anton Borja zenak, esaten zigen Euskal Herrian berriztagarrien aldeko politiken eza eta politika horiek sektore publikotik ez gauzatzea, lotura zuzena zuela enpresa multinazional horietako batzuk (Iberdrola, Petronor) egoitza Bizkaian izatearekin eta hauek botere politikoarekin dituzten loturengatik. Horrela esan dezakegula uste duzu zuk ere?**

Dudarik gabe. Gu herri txikia gara eta baliabide gutxi ditugu. Nafarroan, adibidez, Energia Hidroeléctrica de Navarra sortu zuen gobernuak duela hoge urte baino gehiago eta horiek hasi ziren energia eolikoarekin. Eta horiek eredu izan ziren Europa osoan. Nafarroa zabala da, orografia egokia du eguzkiaren eta haizearen aprobetxamendu

energetikorako. Gero bestelako interes batzuk nagusitu dira. Aldiz, beste herrialdek txikiagoak dira. Ente Vasco de Energia, EAEn, beste bide batetik hasi zen, agroerregaien alorrean lan egiten. Baina horretarako ere, ez du zentzurik Indonesiatik edo halako lekutatik palmako olioko kantitate erraldoiak garraiatu behar izatea eta gure zor ekologikoa handitzea.

Galderari erantzunez, bai. Zoritxarrez, bai. PNV, UPN, PP, PSOE, establishmenteko alderdiak guztiz lotuta daude interes horiei. Horregatik behar dugu aldaketa politiko-instituzionala. Ikusi nahi dugu Nafarroako Gobernuak zer politika energetikoa hasten duen.

**Aldaketaren beharra azpimarratzean krisi ezberdinak zerrendatu dituzu: energetikoa, klimatikoa, zaintzarena, demokratikoa,... Azken hau izan da erreplikatu duzuna. Sakondu dezakezu horretan?**

Demokratizatorik gabe ezin dezakegu ulertu krisiaren irteera, edo krisi ezberdinen konponbidea. Joseba Azkarraga soziologoak eszenatoki ezberdinak proiektatzen ditu. Horietako bat "Mad Max" da: autarkia eta kaos energetikoan, norbere armekin besteak akatu. Hori baztertu egiten dugu. Beste bat multinazionalena da, baliabideak eta teknologia dugula eta lasai egoteko, egingo dugula, diote, kapitalismoak soluzioa topatuko duela. Badago ere sozialdemokraziarena, kalte ekologikoak ekonomia kapitalistan integratuko direla eta kontrolatuko dutela.

Eta gure ustez, hiru eszenatoki horiekin ezin da. Muga batzuk daude, muga ekosistemikoak daude. Baliabide guztiek, petrolioak, gasak, uranioak... dute bere gailurra eta ezin dugu pentsatu 250 urte industrialetan altxor hori xahutu ostean,



Da igual que sea la crisis energética, el cambio climático, la crisis de los cuidados, o la crisis fiscal y del estado del bienestar... En estos momentos, hemos de encontrar otro modo de hacer las cosas.

Las ecologistas reivindicamos la participación popular en la transición energética o en las nuevas políticas ante el cambio climático. No podemos permitir que sigan mandando los intereses de las multinacionales. Es el momento de que los políticos pongan al pueblo por delante de las multinacionales.

jarraitu ahal izango dugula bide bere-tik. Gure bidea deshazkunde sustengarri demokratiko batean topatu behar dugu. Zergatik esaten dugu demokratikoa? Uste dugulako munduan benetan gehiago zabal batek nahi duela aldaketa hori. Oso jende gutxik esango du gaur egun ez duela bere burua ekologistatzat jotzen. Balore hori txertatzen joan da. Naturaren zaintza eta naturarekiko jokaera orekatzea modu orokorrean onartutako jarrera da. Baina gero, praktikara etorri konturatzen gara jendearen balore, asmo eta gogoak batetik eta konduktak eta jokabideak bestetik, kontraesanean egoten direla. Horregatik esaten dugu aldaketa martxan ipintzeko bide demokratikoak behar ditugula: politika energetikoak, politika klimatikoak, politika sozialak,... ezin dira multinazional eta elite politikoen artean atzeko patioan egiten duten tratu baten bidez erabaki. Eta oraingo sisteman partehartzea berba egiteko eskubidera mugatzen dute hori. Partehartzea, erabakitzeko ahalmena da. Ez dugu bakarrik protestarako eskubidea. Bide demokratikoa eta gardena erabakia hartzerakoan erabili ahal izatea da.

Azpiegitura politikak diseinatzeko garaian, adibidez, eztabaida demokratikoa egin behar da. Non egin daiteke eztabaida hori? Maila lokalean? Batzutan bai. Ez dago, ordea, markorik eztabaida hori modu gardenean herritarrekin egiteko. Bai aldaketa klimatikoaren politketan, bai politika energetikoetan, edo zaintzaren politketan edo politika industrialetan... erabakiak eta praktika berriak behetik gora etorri behar dira:

praktika komunitarioak, bailara ezberdinetan aurrera ateratzen diren alternatibak josten eta saretzen... Eta baliabideak joan gara sortzen ere. Udalbiltzatik hasita eta orain osatu diren udaletxeek ere paper bat joka dezakete.

Jakin badakigu demokrazia oso kontzeptu likidoa dela. Gaur egun demokraziaren izenean gerrak, inbasioak, eta sarraskiak egiten ari direlarik, are gehiago gainera. Baina nire ustez, guk kontzeptu hori errebindikatu behar ditugu. Etorri behar diren politika berriak herritik sortuak, herriaren izenean eta herriaren ongizateari begira sortu behar dira.

### **Aldaketa demokratiko horretan, langileek zer paper izan behar dute? Sindikalismoak zer paper eduki behar duela uste duzu?**

Euskal Herrian mugimendu ekologistan nagusi da ekologismo politikoa edo soziala. Ekosistema eta gizartea ez ditugu bereizten. Euskal Herria txikia da, baina horren barnean badira Gorbea eta Bilbo, Aizkorri eta Ondarroa, Baiona eta Aralar... Dena da Euskal Herria. Nekazal arloak, industria, hiria, herr txikiak... dena sartzen da gure nazioan. Dibertsitatean. Mugimendu ekologista osoa ez da berdina. Sindikalismo guztia ere ez. Eta langileria ere oso desberdina da.

Zorionez Euskal Herrian abantail bat badugu. Badugu mugimendu sindikal bat, gehiago sindikal bat, ez duena Estatuaren errapeetatik bizi behar. Mugimendu sindikala antikapitalista dena

badugu. Badira, bai, kapitalismoan bizitzetik haratago ezer ikusten ez duten sindikatuak ere baditugu gurean.

Gizarte nahikoa orekatua gara, gure bizimodua eta bizi baldintzak inguruko herriein konparatuta nahikoa onak dira, pobrezia gutxiago dugu,... baina horrek guztiak ez du esan nahi aldatu behar ez dugunik. Trantsizio energetikoa abiatzeko baldintzak baditugula uste dut. Jakina, "establishment" politiko eta ekonomikoa oso indartsuak dira. Euskal sindikalgintza arma potentea da horren aurka egiteko. Bere momentuan euskal sindikalgintza izan zen Lizarra – Garazi akordioaren garaian aldaketa politikoa martxan jartzeko indarra biltzeko tresna oso inportantea. Nik gehiago sindikala ikusten dut aldaketa bultzatzeko bidean tresna garrantzitsu bezala. LAB, EHNE, ESK, STEE- EILAS, ELA, HIRU ikusten ditut horretan, agente sindikal eta soziopolitiko bezala ingurumen politika demokratikoak bultzatzen, eremu honen demokratizazioa behartzen.

Sindikatueta oraindik kostatzen da ingurugiro politikak, edo hizkuntzarenak, edo identitate sexualarena... lehenetsun bezala kokatzen. Bigarren mailako kontraesan gisa ikusi izan dira. Euskal sindikalgintzak barneratu behar du hemen ez daudela lehen mailako kontraesanak (sozioekonomikoak) eta gero bigarren eta hirugarren mailakoak. Hori bukatu da. Arazo sozioekonomikoak ezin dira beste baldintza horietatik banatu. Eta Euskal Herrian kultura politiko hori azkar hedatzen ari da.

# Euskal Herrian eta munduan

## Sistema aldatu, ez klima



**URTZI  
OSTOLOZAGA**

Egunetik egunera, medio ofizialak izkutatzen saiatzen badira ere, egoera gero eta larriagoa da. Eta bai, alarmistak izan beharra dugu, klima aldaketaren ondorioak gero eta gehiago igartzen ari gara munduko txoko ezberdinetan: goseteak, errefuxiatu klimatikoak, natur baliabideen hustiapena eta agorpena, desberdintasun itzelak, gerrak,.... ..

Eta zergatik izkutatatu behar dute erreallitate hori? Kapitalismoa ez delako kapaza bizitza babesteko eta zuzentasun soziala lortzeko. Kapitalismoa sistema zapaltzailea eta harraparia da, irabazien etengabeko hazkundea behar duena biziko bada. Eta hau badakigu epe luzera eutsiezina dela: muga fisikoak eta sozialak begi bistan daude.

Munduko agintariak aldaketa klimatikoaren ondorioak gutxitzeko hainbat aldiz bildu dira, baina ezer gutxi egin dute arazoari aurre egiteko. Oraingoan, hogeigarren aldiz Parisen bilduko dira, eta Kiotoko Goi Bileran hartutako adostasunak berretsi beharko dituzte. Baina Kiotoko protokoloaren helburuak eta eraginkortasuna ez ziren nahikoa izan. Esperantza gutxi dugu Goi Bileran honetan jarrita, izan ere,

bertan parte hartuko duten gobernuen interesak ingurumenarengandik, pertsonon ongizatearengandik zein osasunarengandik hurrin daude. Beraien interesak merkatuen menpe daude eta itxurakerietan ibiliko badira ere, gutxi batzuen aberastasuna lehenetsiko dute beste guztiaren gainetik.

Pertsonak, planeta eta bizitza erdigunean jartzen dugunon esku baleude Goi Bileran honetan hartu beharreko erabakiek sistema bera errotik kolokan jarri beharko lukete. Edo gutxienez 2020tik aurrera Kiotoko protokoloa benetan emisioak gutxituko lituzkeen akordio bategatik aldatuko genuke.

Parisen eskeiniko zaiguna dagoeneko agortua dagoen formula da. Ezinezkoa da erregai fosiletan oinarrituriko eremuan jarraitzea. Dagoeneko urgentea da ahalik eta epe laburren karbono gutxian oinarrituriko ekonomia garatzea. Hori lortzeko, frackinga bezalako teknikak legez kanporatuak izan behar dira, berriztagarrien alde egin behar dugu, agroekologiaren eta arrantza jasangarriaren alde egin behar dugu, gertuko merkataritza bultzatu behar dugu... Eta horrekin ba-

tera, behar sozialak errebisatu behar ditugu errotik: zer den benetan behar duguna, nola ekoiztu pertsonak eta lurra kontuan hartuta eta nola banatu beharko liratekeen lan horiek. Neurri hauek nahitaezkoak dira atzeraezina izango den egoerara ez heltzeko.

LABek Euskal Herrian, aldaketa klimatikoaren aurrean Euskal Herriko Karta Sozialean jasotako naturaren eskubideak gure erakundeen marko araugilean txertatzean ikusten du aterabidea.

Ingurumen osasuntsua eraikitzea da gure nahia, eta horretarako naturaren eskubideekin konprometitu egotea besterik ez dago. Goazen edo hobe esanda, kapitalismoak daramagun bideetik jarraitzerik ez dago, uste baino lehenago amildegiarekin aurkituko garelako. Aldaketak planteatzen ditugu guk, aldaketa errealak eta egingarriak, eta bide berri horiek hartzeko, jendarteko gainontzeko eragileekin aliantzak sortu eta elkarlana abiatzea da gure hautua.

Produktzio bitartekoetan eta erakundeetan inziditu beharra dugu, interes espekulatiboen asezinaren gainetik ingurumena eta gu guztion osasuna jarri behar dugu langileok jendarteko gainontzeko sektore guztiekin batera. Horretarako, erabakien jabe gu geu izatea nahitaezkoa da, langileon eta gainontzeko sektoreen parte hartzea guztiz beharrezkoa da komunitate osoaren mesedetan kudeatzeko, bai gure belaunaldiaren alde, eta bai etorkizuneko belaunaldien alde ere.

Gure lehentasunak argi marraztuak

dauzkagu, badakigu zeren aldekoak garen eta zeren aurkariak garen.

Ez dugu energia nuklearrik onartuko, Lemoiz itxi genuen, eta Garoña iztea ere derrigorra dugu. Kantauri itsasoan hidrokarburorik dagoen ez dugu ikeritu dezaten ere nahi, eta Euskal Herria frackingetik libre izan behar da. Mugikortasunari dagokionez, Abiadura Handiko Trenaren aurkariak gara, makroproiektu hau euskal herritarrontzat ekonomikoki, sozialki eta ingurumenari dagokionez kaltegarria da, obrak gelditzea eta auditoria soziala egitea exijitzen dugu. Hondakinen tratamenduari dagokionez, errauskailuak bezalako sistemak edo zementeretan erraustea gaixo sortzailea eta guztiz kutsakorra dela jakinda, sistema hau alboratzea exijitzen dugu.

Baina noski, ez gara ezezkoan gelditzen, ereduaren arteko talka egiten dugu, biak aurrez aurre konfrontatuz. LABek arrantza, nekazaritza, hosto zabaleko basogintza... bezalako sektore estrategikoen alde egiten du. Argi dugu bidea elikadura burujabetza dela. Energiari dagokionez, gehiegizko kontsumoa gelditu, aurreztu eta enplegua sortuko duten berriztagarrien eta ordezkagarrien alde egitekoak gara. Mugikortasunari dagokionez, batez ere lanera eta ikas-tera joan etorriak egiteko, garraio bide komunitario eta publikoaren alde egiten dugu. Hondakinen tratamenduari dagokionez, kontsumo eta produktio arduratsuak egitearen alde egingo dugu, erraustegiak alboratzeko, zero zabor izan behar da helburua, eta hori lortzeko, sistema egokiena denaren alde egingo dugu.

“El capitalismo es un sistema explotador y depredador, que necesita de un constante crecimiento para sobrevivir. Y sabemos, que esto a la larga es insostenible: los límites físicos y sociales saltan a la vista”

“LAB entiende que la solución viene insertar en el marco legal de nuestras instituciones los derechos de la naturaleza frente al cambio climático recogidos en la Carta Social de Euskal Herria”

